

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko apirilaren 30ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-03-25EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-03-25eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Nere eta Maddi Sotil

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko martxoaren 27an, 14/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Nere eta Maddi Sotili apirilaren 8rako arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara Beteluko udaletxeko erabilera anitzeko gela erabiltzeko baimena ematea, hitzaldi bat emateko.

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko martxoaren 28an, 15/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak eta akordioak ordaintzeko agintzea.

3.- Ezkontza zibilerako eskumen eskuordetza

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko martxoaren 28an, 16/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko martxoaren 31n Beteluko udaletxean egin beharreko ezkontzarako Iñaki Elizalde Zubillaga eskuordetzea, ezkontza zibil hori egiteko ahalmena izan dezan.

4. Maria Josefa Apalauza Echarri

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko martxoaren 28an, 17/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mari Josefa Apalauza Echarri Beteluko 1. Poligonoko 35. Lursailean dagoen Gure Etxearen fatxada margotzeari buruz egindako eskaerari buruz dokumentazioa osatzeko errekerimendua.

5. Erwin Mendez

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko apirilaren 1ean, 18/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Erwin Mendez hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 507. Lursailean txabola ba, negutegi bat, inokulatutako enborrak eta itxitura egiteko.

6. Juan Ignacio Buldain Arguiñarena

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko apirilaren 11n, 19/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Juan Ignacio Buldain Arguiñarenak Migulenea etxearen beheko solairuko txokoa bereizteko eskaerari dagokionez, eskatzaileari notarioarekin nahi duen banaketa horizontala argitzeko eskatzea eta higiezinaren baldintzekin bat datorren lizentzia eskatzea.

7. Lakobeikoa 5-6

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko apirilaren 22an, 20/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Lakobeikoa 5. Blokean aisialdirako lokal bat dagoela salatuz 5-6 bizilagun komunitateari ohartaraztea bizilagunak ez errespetatzeagatik elkarbizitza eragozten duten jarduerak badaude, Foru Poliziaren aurrean salaketa egitea.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1. – Angel Rekalde

Angel Recalde Goldarazen ibilgaluaren baja dela eta 2025. urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren itzulketa proportzionala eskatu du.

NA 8423AW matrikula duen ibilgailua 2025eko martxoaren 21ean eman zen bajaran

Hau ikusirik honakoa onartu da:

Urteko hiru hiruhilekori dagokion zati proportzionala itzultzea, hau da 103,25 euro.

Hau dena Nafarroako Toki Ogasuneko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 163.3. artikuluari jarraiki.

2. EH Mendi erronka

EH Mendi erronkak ekainaren 7an Leitzan hasi eta bukatuko den lasterketa antolatuko du. Hori dela eta, eragozpenik dagoen galdegin du eta Beteluko eremuak Beteluko Udalak garbi dezakeen jakin nahi du.

Honen aurrean, aho batez, zera onartu da:

Lasterketa egiteko eragozpenik ez dagoela adieraztea eta Beteluko eremuaren garbiketaren ardura Beteluko Udalaren gain hartzea.

4. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Gizarte zerbitzuak	2025 1.kuota	6.555,48 €
Amador Autor	F. 7/2025 argiztapen publikoaren auditoria	2.862,00 €
Iruña mantenimientos	F. 25.148	1.347,94 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	359,24 €
Ion Ezcurdia Azcona	F. Desbrozeak	1.597,32 €
Venus Campos Walsh	F. Martxoko garbiketak	2.833,41 €
Wikai	F. 1/5780	112,10 €
Repsol	F. 25/8	16,02 €
Orona	F. 2504119748	413,03 €
Geserlocal	F.AA29/193	309,85 €
Iberdrola	F. Urberoa	6,97 €
Lyreco	F. bulego materiala	99,43 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	326,39 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	10,50 €
Obysur	F. 25FA71	38.365,71 €
IDM Medical	F. 567	131,07 €
Baiza Motor	F. I25/623	1.114,41 €
Araizko Udala	Idazkariaren gastuak 2024 urtar-uztail	16.867,69 €
Araizko Udala	Idazkariaren gastuak 2024 abuztu-abendu	13.030,63 €

Iberdola	F. Argiztapen publikoa	619,80 €
Contenur	F.25000509 zakarrontziak	205,70 €
Codisna	F.25.123	199,65 €
Comercial Fervis	F.980	186,44 €
Goienar	F. udaletxea	1.293,78 €
Goienar	F. Eskola	1.048,89 €
Angelines Carrillo Ruiz	F.A7/25	90 €
Brico depot	F.6107	295,28 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 17/2025	125,84 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 18/2025	149,92 €
Iruña mantenimientos	F. 25.5153	593,95 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1060	119,20 €
Brico Centro	F. 161892	137,34 €
Mari Tere janaridenda	F. 2025/2	86,70 €
Diegaby Hostal SL	F. 83270	26,40 €
Diegaby Hostal SL	F. 43	132,90 €
Igancio Eraso Ochotorena	F. 42	1.063,14 €
Ofico	F.F251633	130,73 €
Federacion Española	F. RAM 25-00068	400 €
Rodriguezpeleta	F. 2361-3	1.513,21 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Kide Aholkularitza	F. S0000478	451,94 €
Hermex ibérica	F. materiala	186,65 €
Maite Harategia	A1/253	806 €
Comercial Fervis	F.979	22,87 €
Bazar Chino (kutxatik)	TPVZLF20378	6,40
	DENETARA:	96.251,92 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

5. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.